

El Drogas-ek kontzertua emongo dau Areatzan urtailaren 2an

17. orrialdea

Arratia posta txartelean erakusketea egongo da Lemoan

Jon Urutxurturen *Arratia posta txartelean* argazki erakusketea inaugurauko da abenduaren 18an, zapatua, eguerdiko 12:30ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean eta bertan egongo da ikusgai urtailaren 7ra arte. **16. orrialdea**



Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio) lana Igorren

18. orrialdea

Gabonetako egitarauak aurkeztu ditue

COVID-19a dala-ta hartzean diran neurriakaz, ekintza bat edo beste bertan behera geratuko da seguruenik. Ha-ta guzti be, 90 jarduera inguru prestatu dabez udalek eta kultur alkarteek Arratia, Ubide eta Zeberion.

Umeak izaten dira protagonistak Gabonaldian eta COVIDaren aurreko urteetakoa bezain zabalak izan ez arren programazioak, Olentzero eta Mari Domingiri harrera ekintzak programatu ditue herri guztietan. Leku batzuetan aurretik kantuz ibiliko dira ume eta nagusiak kaleetan zehar, beste batzuetan umeek gutunak emongo deusez Olentzero eta Mari Domingiri, baina danetan eurokaz agurtu eta berba egiteko aukerea izango dabe umeek, bertan behera ixten ez badira.

Gabonetako Umeen Parkeak eta Errege Kabalgatak murriztu egin dira, baina Bedian eta Igorren, neurrietara egokitutako Kabalgatak egitekoak dira. Neurriak

neurri, umeentzako jolasak, magia, ipuin kontalariak, antzerkia eta beste jarduera batzuk be programatu dagoz.

Nagusientzako egitaraua zabala da eta kontzertuek hartzean dabe protagonismoa: Areatzako Banda, Luis Iruarizaga Abesbatza eta Arratiako Musika Eskolako Gabonetako kontzertuei, gehitzen jakie hainbat gospel emonaldi, eta rock kontzertu. Gabonetako merkaduak be egitekoak dira Artean eta Areatzan eta hainbat herri-tan jai giroa izateko kalejirak egin gura ditue. Urte amaierako mendi urtekerak be agertzen dira egitarauan.

Hamabi urtetik gorako ume eta gaztetxoentzako Negulekuak dagoz programatu. **10. eta 11. orrialdeak**



IGORRE

Lupetz handiagaz baina giro ederrean jokatu zan ziklo-krosa

2020ko etenaren ostean eta AZEren zuzendaritza barriagaz, Igorreko Ziklo-krosaren 2021eko edizioa etorkizunari begira jarri zan eta ziklismo eskolek eta ziklo-krosari gazteek hartu eben parte. 21 egunetan euria egin eta gero, eguraldia lagun izan eban Igorreko Ziklo-krosak. **14. orrialdea**

ARGIZTATU GABONETAKO SOINUA

AZTERTU ZURE ENTZUMENA
eta gabonetako argia OPARITUKO dizugu

Olaetxe Optika Zentrua
Sabino Arana Kalea, 3. Igorre. T. 946 57 70 03

ENTZUMEN ZENTRO OFIZIALA **WIDEX**

ARRATIA

Arratia Institutuak 50 urte bete dituala ospatuko dau hilaren 17an

Arratia Institutuak 50 urte bete dituala-ta ekitaldi berezia egingo dau hilaren 17an, eguerdiko 12:00etan Igorreko Lasarte Aretoan. Hau dala eta BEGITUk 12 orrialdetako gehigarri berezia dakar erdiko orrietan, alkarizketa, erreportaje eta abarrakaz. **7. orrialdea eta gehigarri berezia**

Gabon zoriontsuak opa deusueguz arratier guztioi

LAN BERTIKALAK

SOKA

T.: 946 036 069 soka@sokavertikal.com sokavertikal.com

UBIDE

Memoriaren webgunea ipini dau martxan Ubideko Udalak

Giza Eskubideen Nazinoarteko Egunean, abenduaren 10ean, egin zan *Ubide oroimena* memoria historikoan sakontzeko webgunearen aurkezpena Ubiden. Aranzadi alkarteagaz batera landu dau Udalak proiektua, Ubiden 1936 eta 1945 artean Giza Eskubideen urraketen biktima izan diranei ize-na ipintez gainera "egia, justizia eta erreparazioa" eskaintzeko.

Zigor Iturriotz zinegotziak Jone Zuloaga Aranzadiko ikerlaria aurkeztu eban webgunearen zehaztasunak azaltzeko: "Urte osoan egon gara dokumentazioa eta testigantzak batzean, horren emaitza dogu hau" adierazo eban. **5. orrialdea**

Literatura txokoa

MEMORIAS DE UN GUSANO

Liburu bat ezeze gaurkoan argitaletxe bat be ekarri gura izan dot hona. Normalean argitaletxe ezagunen liburuak irakurten doguz euskeraz zein erderaz, baina nozean behin sorpresak hartuten doguz bidean agertuten jakuzan liburuakaz eta argitaletxeakaz.

Horixe pasau jatan niri oin dela urte batzuk oporretan Almeria aldetik nenbilala, Las Negrasen, hain zuzen be. Udalerria Nijar da izan, baina hainbat herri txikik osotuten dabe udalerria, horreetako bat Las Negras, eta hortik hur Fernan Pérez. Atzen herri horreetako jatetxe bat gomendatu euskuen afalduteko; bertara joan eta hara non jatetxea eta argitaletxea topau genduzan. Ediciones Raro, Raquel Rodríguez sortzaileari zor

deutso izena. Argitaletxe xumea, baina zintzoa, hango inguruetakosortzaileen lanak argitaratzen dituana; eta sano kalidade onekoak izan be.

Aitagarria da Raquel Rodríguez beraren poesia, liburutxutxikietan argitaratu dauana; *Donde nadie me encuentre*, edo *Putayatea*, poesia zoragarria, zintzotasunaren eta indarraren eredu. Baina batez be nobela bat aurkeztu gura deusuet, Jesús Tíscar Jandra idazlearen *Memorias de un gusano*. Lan itzela, teknika ikaragarriagaz idatzita. Gure gizartearen basakeria kon-tatzen dau hutsaren hurrengoan dan gizonskila baten bizipenen bitartez. Protagonista ziztrin hori da gure gizartearen basakeriaren

biktimea, eta aldi berean, anker hutsa da bera baino gitxiago di-ranakaz; masokista hutsa, eta aldi berean, sadikoa; koprofagoa, eta aldi berean, perfektionista; irai-nik lotsagarrienak mutik be esan barik jasaten dituana, eta aldi berean, ahal dauan bakanetan ankerkeria neurri bakoa erabiltzen dauana hurkoagaz, munduko guazarik naturalena balitz moduan. Gure gizartearen gehie-gikerien espilu izugarria, batzue-tan bildurra emoteko modukoa. Hori dana umorez ondo jantzita, makina bat barre be egingo do-zue-ta *Memorias de un gusano* irakurtean.

No busco el perdón, chico
ni la retahíla de detalles

que conforman el hábito
de una rutina mortífera y fatal
pero tú
sí buscas una madre
que te cuide,
una mujer elegante y sonriente
siempre fiel.
Lo siento
pero tengo alma de puta
y soy atea.
Me revientan los sermones.

(Putayatea, Raquel Rodríguez)
Rafa Ugalde



Jesús Tíscar Jandra
Memorias de un gusano
Ediciones Raro, 2017
192 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Abenduaren 13tik 19ra
Andrea Lavín Abadía. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Abenduaren 20tik 26ra
Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154
22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.
Abenduaren 27tik urtailaren 2ra
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908
22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabaria 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543 / info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eus

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.
Ubide-tik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorre. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 673 90 13.
Helbide elektronikoa: begitu@begitu.eus
Webgunea: www.begitu.eus
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Banaketea: Iraia Herrero (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Izail Perez Junkera (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.
Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituAldizkaria). **Twitter:** [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus). **Instagram:** [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)
Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:

Arantzazu

Areatza

Artea

Bedia

Dima

Igorre

Lemoa

Ubide

Zeanuri



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: *begitu@begitu.eus* helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Leire Bilboko Alde Zaharreko erlojuaren parean (arrastiko bederatziak puntu-puntu), Aner etxoten, barriketan, bere buruegaz ari da berbaz, zinemara joateko lotuta egozalako eta laguna, antza, berandu etorriko dalako; betiko lez.

Leire: ...bederatziek!! Ordu erdi berandu! Baia susterbako honek ze pentsetan jona, mundu osoak bere inguruen jira-biraka egin beha dauela, ala? Ez jekoanat beste zereginik ba, ha etxoten egon barik! (...) Ez jaona eskubiderik. Oin be atxakiren bat pentsauko jona, eta nik ixeldu besterik ez ete dot ein behar?

(...) Ganera, hi papaue haz, neska, beti tertzioz heldu gurean habil, eta ez dona sekule ikisiko. Anerregaz arpelik iziten dona puntualtasune, badok behingoarren ikisteko garaie.

(...) Betiko lez, hor etorriko dona, barkatuteko eta barkatuteko, ez dauela guretan eiten, baia ezinean dabilela beti, atxakiek gora eta behera, ez jakianat ze behar ein beha izin dauela baserrien, eta holangoak; betiko kontuek! Hau be Maiten modukoa, berandu eta trankilo.

(...) To! Bañoana, ezin badona zinemara sartu, beretzat txarrago, polito merezidute jekona! Neu sikan ez nok lotuko ikusi barik filmaren hasiere! Doala infernure!

ERETXIA

Eguraldi txarra?

Oin dala gitxi, kanpokoa dan lagun bategaz berbetan nengon interneten eta eguraldiari buruz galdetu eustanean, nik "euria da :-)" erantzun neutsan. Berak esan eustan, hemen gertatzen dan legez, oso arraroa egiten jakola arpegi alai bat ikustea euria dala esatearen ostean. Egia da, askok eguraldi euritsu edo hotza, tragedia baten moduan bizi dabela. Baina nire ustez, eguraldi "txarra" ez da zertan hain modu txarrean bizi.

Alde batetik, naturarentzat euria onuragarria da. Ibai eta lakuek eskertzen dabe, landareak bizirik jarraitzeko ura behar dabe eta ur horrek hainbat leku garbitzen ditu. Ez bakarrik normalean zikinkeria pilatzen dituen ertzak bakarrik, airea be garbitzen dau euriak. Egia da gehiegizkoa danean landareek eta ibaiek be sufriduten dabela, baina, nire eretxian, euriaren ostean naturak hobeto arnasten daua dirudi.

Eta ez bakarrik naturak, han bizi garan gizakiontzat be ona izan daiteke. Pentsau bestela euriaren soinu etxean zagozanean, hain erritmikoa, hain polita, hain lasaigarria. Ez dakit zuek, baina nik askoz hobeto egiten dot lo euria danean. Honetaz aparte, pentsau daigun neguak eta bere eguraldiak ekarten deuskun edertasunean be. Ekaitzen argi distiratsuak, edurraren zuri kartsua eta, zelan ez, ustrukuaren zazpi koloreak, zeruan egindako margolan bat balitz lez.

Baina alde onak ez dira hor amaitzen, ez, euriak kulturaren be eragin ona izan leike. Zelan, baina? Itxi egistazue pasadizo bat kontetan hori azalduko. Zinemazale amorratua nazanez, batzuetan film bat gustetan bajata, behin baino gehiagotan ikusten dot. Azken film hau hiru aldiz ikusi dot: bigarren aldiz joan nintzanean bakarrik sei persona egon ginan aretoan. Hirugarren aldiz joan nintzanean, barriz, askoz persona



CLARA LUJA AZPIRI
Irakaslea

gehiago egozan, eta zinematografia eta istorio polit hori disfrutau eben, eguraldi "txarra" egiten ebalako. Askotan eguraldi eguzkitsua egiten dauanean kanpoan egoteko obligazinoa sentiduten dogu, eta zinera joateko "denporarik ez dagoala" esaten da. Persona pilo batek egin eban lan peilkula horretan, ez da atsegina euren lana estimadua izatea?

Aspaldi ez dala "negua gustetan ez bajatzu, jaka egoki egokia ez dozula topau esan gura dau" inoan post bat irakurri neban. Eta egia da txamarra on batek alde handia egin leikela. Erropa egokia badaukazu, hotzak egon beharrean, geruza epel batek babestuta legez sentidu zaitekez, lasai eta pozik. Kanpoan hotza, baina zure erropa goxoen barruan bero-bero zagoz.

Bero-bero egoteko beste bide bat, betidanik erabili dana janaria da. Eta zenbat janari on eta goxo dagoz neguan? Baba on batzuk, mota guztietako zopak, txokolate beroa... Konsistentzia handiko jakiak, beteten zaituenak eta balore nutrizional handia daukienak be. Ezin doguz ahaztu gabonetako janari ahogozagarri guztiak: polboroi eta turroiak, itsaski mota guztiak, txanpana eta mahatsak... Saboretsuak eta osansuntsuak diran platerak, udan normalean disfrutetan ez diran plazer sinple, baina gogobetegarriak.

Beraz, eguraldia "txarra" dala esan baino lehen, gogoratu naturarentzat zein lagungarria dan, gogoratu zinemagileek zenbat eskertzen daben eta gogoratu erropa bero-beroa jantzita, negua ez dala hain txarra.

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:
<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA

Kixmi eta
Olentzero

Mito eder hau era hone-
tara kontatzen deusku
On Jose Miguel Ba-
randiaran jakintsuak. Kristautasunaren sarrerea, eta, ondorioz, mito jentilikoen desagerpena da Euskal Herrian oso zabalduta dagoan elezahar baten gai nagusia. Ataun herritik etorren bersino baten arabera, jentilak, Aralarko Argaintxabaleta bizkarrean dibertitzen egozan egun baten, Ekialdetik hodei argitsu bat eurenganutzen ikusi eben. Fenomeno horrek bildurturik, jentil zaharrari deitu eutsien eta inguru hartara eroan hodei misteriozkoa ikusi eta zer esan gura eban adierazoteko. Jentilaren erantzuna: "Kixmi jaio dok, gureak egin jok! bota naizue amildegira". Orduan, hodei argitsuaren atzetik, mende balderantzia joan ziran jentilak eta Arraztarango hesira heltzean, Jentilarri deitzean dan harritzar baten azpian lurperatu ziran. Trikuharri hori Barandiaranek,

Aranzadik eta Egurenak aztertu eben geroago. Holan amaitu zan jentiltasuna, herri-mitoaren arabera. Baina jentiletariko bat bizirik gelditu zan Aralarko jentilen hondamenditik eta haranera jaitsi zan Kixmiren jaiotza iragartera. Lehenengo misinolari hori Olentzero izenez ezetuten da gaur egun Euskal Herriko eskualde gehienetan. Horra-horra gure Olentzero! Baina, gaur egun Olentzeroren bersino eta agerraldi desbardinak ikusten doguz nahinondik. Eurretari baten, Donostian, 1994an sortutako Mari Domingi dager Olentzerogaz batera. Baina, kronologiara bagoaz, Olentzero, JM Barandiaranen mitoan kristau aurreko azken misinolari lez dager, eta Mari Domingi oster, kristau aroko Gabon-kanta bat da. Abesti mota honen jatorria jakiteko Italiako Siziliara jo behar dogu. Hau da, XVII. mende alde-
ra sortu zan kantu-tipologia hau eta gero zabaldu Siziliarik hara. Gurera XIX. mende azkenerantz helduko da eta herri-abesti hori RM de Azkuek jasoko deusku XX. mendean. Esandako guzti hau, hausnartze-biderako litzateke, ahal dan neurrian gure ohitura zaharrei eutsiz nondik gatozan jakiteko. Hala bedi!

ZERTZEAN



KEPA INTXAUSTI

Gaia jarrita: "Bizkaiko
Bertsolari Txapelketea"



1

Bertsozaleon sena
zer dan aitortzean:
bertsolaria doinu-
errimak lotzean
gorputzean zirrara
eta bihotzean
taupada bereziak
bertso bakoitzean.

3

Oholtzaren gainean
zortziko kuadrilla
urduri ta gogotsu
txapelaren billa
guretzako jai egun
bihurtu dadilla
ia giroz lehertzen
dogun Miribilla.

2

Nafarroa ta Xilaba
igaro ahala
ezin ahaztu orain
gure txanda dala
indar erakustaldi,
helburu apala:
18an Bilbon
Bizkaiko finala.

4

Bertsoa ez da isiltzen
final egunean
berpizten da plazara
jaisten dan unean
danon artean zerbait
sortzen dogunean
benetan sinisten dot
etorkizunean.

BEGI TXINDORRA

Frankismo sasoiko seme-alabak gara eta Arratia Institutuak zementarian egin dauan lez 50 urte beteta daukaguz argazkikook. Atzena izan zan Marta, Euskarearen Nazinoarteko Egunean bete eban eta mendi erdi, arin esaten da hori, eta joan be, holan joan dirala urteak esan neike. Abenduaren 4an batu ginan Igorreko 71kook, Francisco Franco Bahamonde diktadorea jaio zan egun berean, 129 urte beranduago. Kintada honetako batzuk izan ginan eskolan eta Arratia Institutuan ikasketa guztiak euskeraz egiteko aukerea euki gendun lehenak Arratian, orduan oindino gaztekeraz irakasten zana. Irakasleak, gidariak, iturginak, erizainak eta danetariko ofizio-
dunak gagoz hemen zuon aurrean. Lehenengoz batu gara aurten, etorriko dira holango beste ospakizun gehiago, ez euki dudarik, eta argazkian ez zagozienok be datorren urtean argazki eder honetara batzea gura dogu. Gure kintoa dan Mikel Markezek *Konplize ditut eta kantuan dinoan lez, maite doguz danak. "Lotsatiak, ausartak, argalak, gizenak, iletsuak, soil-soilak, marimutilenak, katemeak, gorilak, pante-
rak, zezenak, konplize ditut eta maite ditut denak".*
Proposamen bat be badakart: egingo dogu Arratiako 71koen kintadea datorren urtean? Hor dago ba proposamena, mahai gainean.
Iñigo Iruarizaga





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inaustaketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com



begitu
.eus



TOKA



agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome - Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilegeta Zentratu: 900
R.P.S. 20/06

UBIDE

Errepresinoaren historia dokumentetako webgunea ipini da martxan Ubiden

Aranzadi zientzia alkarteagaz batera landu dau Udalak *Ubide oroimena* proiektua. Ubiden 1936 eta 1945 artean giza eskubideen urraketen biktima izan diranei izena ipintez gainera "egia, justizia eta erreparazinoa" eskaini guran.

Erredakzinoa

Giza Eskubideen Nazinoarteko Egunean, abenduaren 10ean, egin zan publiko *Ubide oroimena* webgunea. Egun berean egin zan memoria historikoan sakontzeko proiektuaren aurkezpena, Ubideko Herriko Tabernan. Zigor Iturriotz zinegotziak Jone Zuloaga Aranzadiko ikerlaria aurkeztu eban, honek webgunearen zehaztasunak azaltzeko: "Urte osoan egon gara dokumentazinoa eta testigantzak batzean, horren emaitza dogu hau".

Gerra eta frankismoaren lehenengo urteetan bizi izan zan errepresinoaren izen-abizenak dira webgunearen muina. 225 personaren fitxak dokumentau ditue momentuz, ubidarrak edo Ubiden eta inguruko frontean errepresinoaren biktima izan ziran gudari, militante eta banakoak. Webguneak dinamikoa izateko helburua dauka. Beraz, Aranzadik testigantza gehiago lortu ezker, gora egingo dau biktimen zenbakiak.

Persona honeek bilatzeko atala da Zuloagaren esanetan, garrantzitsuena. Izan be, bertan da ikusgai errepresino formen dibersidadea: irakasle eta funtzionarioen garbiketea, erbestealdi behartuak, desagerrarazpenak, burrukan hil edo zauritutakoak, erailketak, atxilotetak, torturak eta umilazinoak besteak beste.

Bilaketeta eginda, errepresaliadu bako-

txari bere fitxa personala gehitu deutso Aranzadik. Izen-abizen horreei nortasuna emoten deutsee datuok. Bertan ikusi dai-teke adibidez, biktimea nongoa zan eta honen lanbidea, familia eta antolaketa politikoa. Gero azaltzen da sufridu eban Giza Eskubideen urraketa mota eta egotzitako delitua. Amaitzeko, errepresino hori frogatzen dauan dokumentazinoa egin dabe publiko, gerra kontseju, auzitegien ebatzi eta espetxeetako fitxak tartean.

Ahozko testigantzak

Baina dokumentazinoa lortzea ez da kasu guztietan posible izan, "batez be andren kasuan" gehitu dau Zuloagak. Edo dokumentuek ez dabe dana kontau. Istorio personalei osotasuna emoteko izan dira garrantzitsuak herritarren ahozko testigantzak.

Kontaketa honeetako batzuk be badagoz ikusgai *Ubide oroimena* webgunean. Biktimen seme-alaba eta bilobetako batzuek kamera aurean kontau dabez orduko oroimenak eta gurasoen historiak. Esaterako, Gurutze Ajuriak bere aita Justoren kartzela garaia kontetan dau, fusilaketeagaz amaitu zana. Iñaki Ajuriak gerra frontea inguruan egoan sasoiari, ubidarren goseaz egiten dau berba. Eta Aurelia Gonzalezek, bere amama Petrak kontauta, burruken ostean Gorbeiatik gorpuz betetako kamioiak bajatuten zirala. Oindino be, inguruetan gorpu asko lur azpian egon ahal diranaren seinale.



IGORRE

Bizkaiko Auzitegiak ukatu egin deutso alabearen zaintza partekatua Irune Costumerori

2017ko abuztuan kendu eutsien Irune Costumerori alabearen zaintza GAS Gurasoen Alienazino Sindrome faltsua argudiatuta.

Erredakzinoa

Orduan, bere gain hartu eban zaintza Foru Aldundiak eta aitagaz biziko zala ebatzi eban, umeak aitagaz egon gura ez izan arren. 2017aren aurretik zaintza partekatua eukan Costumerok epaile baten aginduz eta barriro indarrean jartzeko helegitea ipini eban Igorrekoak. Zemendiaren 25ean, notifikau eutsien Bizkaiko Auzitegiaren Autoa. Bertan ukatu egiten deusie alabearen zaintza partekatua, zaintza eskusiboa aitari emonez.

Costumerok nabarmendu gura izan dau fetxea erakundeen "hipokresia" salatuteko. Izan be, zemendiaren 25ean, Andakanako Indarkeria Ezabatzeke Nazinoarteko Egunean erakundeetako ordezkariak, indarkeria horren kontra agertu ziran, kanpaina eta mobilizazioetan, eta aldi berean, "biktimei sinistu ez" eta egiturazko indarkeria matxistea erabiltzen jarraituten dabe. Bizkaiko Auzitegiaren Autoa, "mendekutat" hartzean dau Costumerok Aldundiko lau langile salatu, prebikazino, tratatu txarrak eta kalte psikologikoak eragitea egotzita eta epailearen aurrean jarri ebazan eta. Epaileak errubakotzat jo ebazan Aldundikoak.

Costumeroren berbetan, erakundeek ez deutsee "andrei sinisten tratatu txarren emoileak salatzen dituenen, eta manipulatzailetzat jotzen ditue". Izan be, Gurutzetako ospitaleak hirutan zabaldu dau aita horren kontrako tratatu txar protokoloa eta emon deutso horren barri fiskaltzeari, baina aita errubako urten da oin arte egindako epaiketa guztietan.



ARRATIA

Institutuak 50. urteurrena ospatuko dau Lasarte Aretoan



Erredakzinoa

Abenduaren 17an, barikua, 12:00etan Igorreko Lasarte Aretoan, Arratia BHI Institutuaren 50. urteurrena ospatuko da ekitaldi batean eta mende erdi horretan Institututik pasau dan jenteari dei egiten deutsee bertaratu eta urteurrena ospatzera. Ekitaldian Institutuak urte honeetan guztietan egindako bidea erreparauko da, musikaz, jantzaz, bertsoez eta sorpresez lagunduta.

Sarrerea debalde izango da, baina aforoa mugatua danez, izena emon behar da alde aurretik. Lasarte Aretoak 300 personako aforoa dauka.

Ekitaldian parte hartuko daben ikasle edo irakasle izandakoen kontaktua lortzea izan zala gatxena dino Beñat Intxauspe ekitaldiaren koordinatzaileak, baina behin lortuta, parte-hartzea bikaina izan dala. Publikoan egoteko konbitea WhatsApp bidez zabaldu da, izena emoteko formularioagaz batera.



UBIDE

Urak dakarrena

Zemendiaren atzen astegoienean euriteek hainbat kalte eragin ebezan Ubideko hainbat etxe eta lokaletan. Oin dala urte bi Ubideko Udalak errekearen zati bat drainatzeko eskatu eutsan URari eta akordio batera heldu eta gero urri bigarrenean egingo zala adierazo eben URAkoek, baina egin barik dago obrea. Hori dala eta gutuna bidali dau Ubideko Udalak egoerea salatuz.

Ubideko Udala

Beste behin be ondorioztatu dogu udalerri txikiok ez dogula inporta. Barriro be sentiduten dogu gure oinarritzko beharrak ez dirala inorentzat garrantzitsuak. Txilio egiten ez badogu, inork ez daki existiduten garana. Gure errekearen zati txiki bat drainatzeko eskatu geuntsan URari oin dala urte bi. URaren eta Ubideko Udalaren arteko hainbat bilera eta akordioaren ondoren, Udalak bakarrik bete dituanak, urrietan zehar eskatutakoa drainatuko zala adierazo euskuen. ALELUIA. Uda pasau, urri lehenengoa heldu eta URari data hurreratzan egoala gogoratzen hasi ginan. Ezustea, URAK Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena behar dau, eta hau ez da heltzean. Ubide hartu-emonetan ipini zan Bizkaiko Foru Aldundiagaz, eta, ezustea, URaren eskaera piloaren beheko aldean geratu zan. Diputazinoa mobiduten ebilen, administrazio bierako teknikariak Ubidera etorri ziran, udalxetik 20 metrora, errekea begiratu eben, lanak egiteko modua ezarri eben, baina Aldundiaren baimenik barik jarraitzen dogu URAk jardun ahal izan dagian. Jarduera hori, gainera, urak eroan eta erreka biek bat egiten daben lekuan itxitako harriak kentzean datza, eta, harrigarria bada be,

errekan behera 200 metro itxi behar dira, urak Ubideko beste etxebizitza batzuk urez bete ez dagian. Zalantza barik, Ubideko biztanleok dauka gure erreka jagoteko interesik handiena, hori da mendeak egiten daroaguna, nahi dozuenean pasa zaitezkie egiaztatzer. Baina nahikoa da gu munduko birika legez erabiltea, ingurumena babesteko atxakiakaz araudi ilogikoak aplikauz. Hasi gaitezaz gure herri txikiak benetan zaintzen, argi dago-ta danok uri handietan biltzea ez dala jasangarria. Bada garaia Bizkaiko Foru Aldundiak, URA agentziak eta Ubideko Udalak alkarrerri pilak ipini eta ekiteko.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osasun ziurtagiriaren eremua zabaldu gura dau Lakuak

Erredakzinoa

Iñigo Urkullu Lehendakariak abenduaren 3an iragarri eban EAEn COVID pasaporteia indarrean sartuko zala, eta hilaren 4tik beharrezkoa da gaueko aisialdiko establezimientuetan eta berrogeita hamar jatun baino gehiagoko jatetxeetan QR kodea daroan agiria erakustea. EAEko Fiskaltzak begi onez hartu dau be Eusko Jaurlaritzak egindako eskaria, eta ontzat jo dau ziurtagiria ostalaritzan, kirol instalazioetan, zentro soziosanitarioetan eta zahar etxeetan eskatzea.

Urkulluk aurreratu eban, nahiz eta egoera epidemiologikoa aurreko boladakaz alderatuta "sano desbardina" izan, 50 mahaikide baino gehiagorentzako jatetxez eta gaueko aisialdiaz harago de-

rrigorrezkoa izatea aztertzen dabilzala eta beste espazio batzuetara zabaltzeko aurrerapen bat heldu zan. "Ahalik eta lasterren egingo dogu" adierazo eban.

Setik 11 urtera bitartekoaren txertaketea

Edade horretako adinbakoen txertaketea hilaren 15ean hastekoa da. Espainiako Estaduko Osasun Publikoaren Batzordearen oneretxiaren ondoren, Lakuak kanpaina honen hasikerea iragarri eban. Umeei abenduaren 15etik aurrera ipini ahal izango jakie txertoa EAEn, adinez nagusienak diran umeetatik hasita, Gotzone Sagardui Osasun sailburuak jakinarazo eban. Bigarren dosia emoteko tartea zortzi astekoa izatea ebatzi dabe. Osakidetza "lehentasunik ez daukien" konsulta batzuk atze-

ratzea be ebatzi dau.

Artean herriko gunen batzuk itxita

Neurri bereziak hartu zituan Arteako Udalak birusaren "transmisio altua" dala eta. Udal Bando baten bidez iragarri eban Udalak ludotekea, frontoia eta eskolako patioa zarratuta egongo zirala eskola-orduetatik kanpo.

10 egunez egon dira funtzionamentuan neurriok Artean, abenduaren 4an 00:00etan ipini ziran martxan eta hilaren 14an, 23:59an gelditu ziran bertan behera. Bandoaren bidez, Udalak azaldu dau Arteako kutsadura maila "umeen fokua" dala. Hori dala eta zarratu ebazan Arteako Udalak umeen erabilerarako espazioak: frontoia, ludotekea eta patioa.

AREATZA

Herrian erosteko bonu kanpaina abian da

Erredakzinoa

Orburu Merkatarien Elkartek eta Areatzako Udalak Bonodenda kanpaina antolatu dabe, aurten-go bigarrena.

Abenduaren 13an hasi zan eta salmentara ateratako 500 bonuak amaitu arte iraungo dau kanpaina. Udalak 2.500 euro ipini ditu honetarako. Holan, herriko dendetan egindako erosketak %20 merkeago izango dira eroslearentzat.

Bonuak 20 eurotan erosteko aukerea dago estankotan, eta 25 eurogaitik trukatu ahal izango dira Bonodenda saltokietan.

Aurkeztutako NAN bakoitzeko gehienez hiru bonu erosi ahal izango dira, beti be 16 urtetik gora euki ezker. Bonu bakoitza behin bakarrik erabili ahal da hurrengo baldintzakaz: ez da dirurik bueltauko ezta ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada be, debekatuta egongo da bonuen truke dirua jasotea, baina bonuak pilatu daitezke. Bonuak erosi eta segiduan gastetako aukerea emoten dau Bonodendak.



1

EROSI ZEURE BONODENDA 20 EUROTAN ESTANKOAN

- Aurkeztutako NAN bakoitzeko gehienez 3 bono erosi ahalko dira (16 urtetik gorakoek).
- 500 bono.

2

BONOAK 25 EUROTAN TRUKATU AHAL DITUZU BONODENDA SALTOKIETAN

BONOA behin bakarrik erabili ahal da, hiru gai kontuan hartuta:

A) Ordaindu beharreko kopurua 25 euro baino gutxiagokoa bada, ez da dirurik itzuliko.

B) Bonoak metatu daitezke.

C) Debeakututa dago bonoen truke dirua jasotzea.



AREATZAKO MERKATARIEN ELKARTEA
ASOCIACION DE COMERCIANTES DE AREATZA

ZEANURI

Aurrekontuak martxan dagoz



Erredakzinoa

Zeanuriko Udala 2022ko aurrekontuak egiteko herritarren ere-

txiak eta proposamenak batzean dabil "danon artean Zeanuri hobetzeko" beharrezkoak dirala eretxita. "Udal aurrekontuen zati bat zertarako erabili ahal dan proposatu" gura izan ezker, herrian banandutako galdetegi bat bete eta udal-terera eroan edo hilaren 15erako harrera@zeanuri.eus helbidera bialtzeko eskatu dau Udalak. Galdetegian lau gauzaren gainean galdetzen da, auzoa edo ingurua hobetzeko beharrianak zeintzuk diran, herria hobetzeko beharrianak, beharrezkoa ikusten dan proiektu bat izentatzea eta lehentasunak markatzeko laugarren galdera bat be badago. Bosgarren aukeran norberak gura duan beste gai bat aitatu leiteke.

AREATZA

Aurrekontuen ildo nagusiak aurkeztu dauz Areatzakako Udalak



Erredakzinoa

Osoko bilkuran onartzeko asmoz, 2022 urteko aurrekontuetako ildo nagusiak aurkeztu ditu Udalak, garrantasuna, hurbiltasuna eta parte-hartzea indartzeko. Aurrekontu proposamen honetarako, "aurreko urteetan egin-dako bidea indartu eta horretan sakontzeko herritarren eretxiak jaso genduzan, eta horreen araber, lehentasun eta hobekuntzak batzean dituan plana aurrera eroango dogu. Horregaz batera, bidean dagozan proiektuak jarraituko dogu, herri atseginago bat helburu izanda, peatonalizazioa bultzatuz, irisgarritasuna bermatuz eta parte-hartzea indartuz" azaldu dau Udalak aurrekontuak aurkeztuteko herrian banandutako aldizkaritxoan. Esku-orri horreetan, aurrekontuen gaineko informazioa emoteaz gainera, udal zerbitzuei eta aurkeztutako proiektuei buruzko eretxia emon eta prozesuan parte-hartze zuzena izateko izena emoteko auke-

rea be badago hilaren 15era arte, galdetegi bat beteta, galdetegia online be badago. **Hiru proiektu nagusi** 2022an aurrera atera gura dauzan hiru proiekturen barri emoten dabe esku-orriok. Eleizearen iparraldeko arkupea handitutea, Kristo kalearen birmoldaketea eta Askatasun kalea barritzatzea dira proiektu horreek. Eleizearen atzeko partea handitu eta han dagozan kable eta makinariak lurperatzea, gun berde bat sortuteko da Udalaren asmoa; Kristo kaleko goikaldean, lorategiak konpondu eta eleizako kanpai zaharra ipini eta, behekaldean eserlekuak ipinteko proiektua dauka, eta, Askatasun kaleari jagokonean, Agenda 2030aren arabera barritzutekoa, kotxeen abiadura murrizteko neurriak eta oinezkoiei lehentasuna emonez. Herritarren aurrean proiektu honeen aurkezpena hilaren 17an egingo da arrastiko 19:00etan Udaleko Areatza Nagusian.

IGORRE

Inor ez dala ilegalaldarrikatuko da Igorren kalejira baten hilaren 18an

Abenduaren 18an, Migratzaileen Nazinoarteko egunean, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformeak deituta, kalejira koloretsu eta aldarrikatzailea egingo dabe Igorren, 12:00etan, errotondatik abiatuta eta ostean herrialde desbardinatoko pintxo dastaketea egongo da Kiñu Gaztetxean. Bertan, Arratian bizi diran komunitateetako jentea batuko da, eskubide guztiak jente guztientzako izan behar dirala defendiduteko.

Erredakzinoa

Migratzaileen eskubideak askotan urratzen dira lege diskriminatzaileak edo-eta gizartearen arrerretxi eta jarkera xenofoboakaz. Jasaten dituen Giza Eskubideen urraketen artean, eskubide zibil eta politikoak ukatzea (atxiloketa arbitrarioa, tortura edo prozesu judizialik eza) eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak urratzea dagoz. Hori dala-ta, osasunerako, etxebizitzarako edo hezkuntzarako eskubideak sarri urratzen dira.

Migratzaileen Nazinoarteko Eguna Nazino Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak, migrazino-fluxuen gorakadea ikusita, abenduaren 18a Migratzaileen Nazinoarteko Eguna izentau eban. Hamar urte lehenago, egun horretan bertan, 1990ean, Batzarrek langile migratzaile guztien eta euren familiakoen eskubideak babesteari buruzko Nazinoarteko Konbentzioa onartu eban. 2016an, Batzar Nagusiak hainbat neurri onartu ebazan, eta neurri horreek Errefujaduei eta Migratzaileei buruzko

New Yorkeko Adierazpenean zehaztu ziran. Adierazpen horrek migratzaileen lan positiboa aitortzen dau, eta migratzaileen segurtasuna, duintasuna, askatasuna eta Giza Eskubideak babesteko konpromisoa hartzean dau. Abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Nazinoarteko Eguna da. NBEk 1948ko abenduaren 10ean onartu eban Giza Eskubi-

deen Aldarrikapen Unibertsala. Dokumentu horretan, gizaki guztien oinarritzko eskubideak zeintzuk diran adierazoten da. Aldarrikapen honek dino, besteak beste, gizaki guztiek dituela oinarritzko eskubide berberak, herrialde guztietan, edozein izanda be euren jatorria, erlijinoa, sexua, hizkuntza, eretxi politikoa edo egoera personala.





Ate irekiak
urtarrilaren 15ean


LAUAXETA
IKASTOLA

*Ezagutu
gaitzazu
gertutik!*



+info:
www.lauaxeta.eus

Gabon zoriontsuak eta urte Barri on!

2022

Gaztaina erre usaina eta
erabat zuri mendia.
Eguberritan goiz izartuta
zuhaizpean oparia.
Maitasunean, osasunean
argia da eskaria:
urte itzela izan daiteela
bi mila hogeta bia.



IGORRE
Danon herria
Danon aukera



betiON GARA



betiON, Euskadiko Telelaguntza Zerbitzu
Publikoaren medaila gorriak **segurtasuna eta**
lasaitasuna eskaintzen digu eguneko 24 orduetan.

Argibide gehiago hemen:
www.euskadi.eus/betion
900 851 600
012 Zuzenean

Euskadi, auzolana



Xabier Lapitz: Kazetaria
Itziar Aizpuru: Aktorea

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez.
Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

Zeu zara
zure
influencer
onena.
#KontsumitzenJakin



KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana



GABONAK

Kultura jarduera ugari programau ditue udalek eta alkarteek Gabonetarako

Arratia, Ubide eta Zeberioko udal eta alkarteek ume eta nagusientzako kultura jarduera ugari prestatu ditue Gabonaldirako. Ha-ta guzti be, COVID-19a dala-ta hartu daitekezan neurriek bertan behera itxi leike jardueraren bat. Olentzeroren etorrerea herri guztietan espero da eta Errege Kabalgatak be programau ditue Bedian eta Igorren. Umeek Gabonetako parkeetan olgetako aukerea izango dabe eta nagusiek, besteak beste, kontzertu, errezital eta antzerkiagaz gozatuko dabe. Ekintza batzuetan izena aurretik emon behar da.

Erredakzinoa

Arantzazu

Abenduak 24, barikua

12:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri ondoetorria plazan.

Abenduak 29, eguaztena

09:00etan, Urkiolara mendi urte-kerea Zaztaparrakaz. Plazan.

Urtailak 6, eguena

18:00etan, Mari eta gailera fabrika antzezlanak Kulturgunean.



Areatza

Abenduak 18, zapatua

21:00etan, William-en Plays and Tales blues eta rock kontzertua The Quiet Corner tabernan.

Abenduak 19, domekea

10:00etatik 14:00etara, Gabonetako Merkadua, "Herri bat, merkatu bat" proiektuaren barruan. Bizkaiko gaiteruak herrian zehar. 12:30etik 14:30era, Burrunba elektrotxarangea. Pintxo Lehiaketea tabernetan.

Abenduak 24, barikua

17:00etan, kalejireia herrian zehar plazatik hasita. Ondoren harrerea Olentzero eta Mari Domingiri frontoian.

Abenduak 26, domekea

19:30ean, Ahaztu baino lehen,

ama poema liburuan oinarritutako, Oroitzen hondarrak nota txikietan emonaldi musikatuak: pianoa, kantua, errezitaldia. Nerea Zuloaga, Mikel Etxaburu eta Izaskun del Cerrogaz komentuan.

Abenduak 27, astelehena

18:00etan, Kidam magoaren Aroak eta mirariak komentuan.

Abenduak 30, eguena

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua eleizan.

Abenduak 31, barikua

10:00etan, Lamino Kirol Klubak antolatutako urteko atzen mendi urtekerea Urrekoatzara. Eleiza aurrean. 11:30ean, Lamino argazkia eta hamaiketako Urrekoatzan.

Urtailak 2, domekea

20:00etan, El Drogas Akustik Fraktion kontzertu akustikoa, komentuan.

Urtailak 4, martitzena

19:30ean, Gozategi taldearen kontzertu akustikoa, komentuan.



Artea

Abenduak 18, zapatua

10:00etatik 14:00etara, Gabonetako Merkadua. Gorbeia Jomuga Turistikoak antolatuta, "Herri bat, merkatu bat" proiektuaren barruan.

14:00etan, jubiladuen bazkaria Ustrukue jabetxean.

Abenduak 24, barikua

17:00etan, plazatik hasita auzoz auzo abestu; 19:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea.

Abenduak 30, eguena

18:30ean, Goizargi Gospel Choir abesbatzaren kontzertua eleizan.

Urtilak 3, astelehena

18:00etan, Eleder magoa frontoian.

Bedia

Abenduak 20, astelehena

17:00etatik 19:00etara, Gabonetako tailerrak ludotekan (ateak zabalik).

Abenduak 21, martitzena

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalegaz liburategian. Gaia: Gabonak.

Abenduak 22, eguaztena

17:30ean, Gabonetako jaia. Erakusketak, Gabon kankak, Gimnasia erritmiko erakustaldia, Jauziri Dantza Taldearen erakustaldia, Gabon postalen lehiaketaren sari banaketea eta Gabon zugatzen lehiaketaren sari banaketea. Sarrerea euro bi edo janari pakete bat personako. Frontoian.

Abenduak 23, eguena

16:30etik 19:30era, Gabonetako Postal Lehiaketako marrazkiak batzea.

19:00etan, Arratiako Musika Eskolareen kontzertua eleizan.

Abenduak 24, barikua

13:00etan, Olentzero eta Mari Domingi plazara joango dira umeakaz egoteko. Gaztain erreak bananduko dira.

Abenduak 28, martitzena

11:00etatik 14:00etara eta

16:00etatik 19:00etara, Gabonetako parkea frontoian.

Abenduak 30, eguena

15:00etan, urtekerea Gasteizko izotz pistara. 8 urte baino gutxiagoko umeak heldu bategaz sartu behar dira pistara. Meriendea eta eskularruak eroan behar dira. Izena emoteko atzen eguna abenduaren 17a.

Urtilak 3, astelehena

16:00etan, urtekerea Arriaga Antzokira Guillermo Tell opera ikustera.



Urtilak 5, eguaztena

18:30ean, Erregenetako Kabalgatea. Kabalgatearen aurretik txokolatea bananduko da.

Dima

Abenduak 24, barikua

11:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea.

Igorre

Abenduak 16, eguena

16:30etik 20:30era, Azoka solidarioa Elkartasun Begirada Elkar-teak antolatuta.

20:00etan, Zinekluba Lurralde hotzak Lasarte Aretoan.

Abenduak 17, barikua
 20:30ean, atek zabaldu. Wood Strings eta Unidad Alavesa taldeen kontzertuak Kiñu Gazte-xean. 19:30ean ipiniko dira salgai sarrerak.

Abenduak 18, zapatua
 08:30ean, San Kristobaleko XVIII. Mendi Martxea. Intxaurbizkar Kultur Elkartek antolatuta. San Kristobalen.
 19:00etan, Igorreko Luis Iruarizaga abesbatza eta Ugandako Aba Taano Gospel taldearen emonaldia Lasarte Aretoan.

Abenduak 19, domekea
 10:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri eskutitza emoteko ibilbide mitologikoa Inazio Zubizarreta Eskolako Guraso Elkartek antolatuta. Izena emotea beharrezkoa da.
 17:00etan, zinea, *Cuidado con lo que deseas*; 19:30ean, *Ultima noche en el Soho* Lasarte Aretoan.

Abenduak 24, barikua
 Olentzero eta Mari Domingi.

Abenduak 26, domekea
 17:00etan, zinea *Una familia feliz 2*; 19:30ean, *El poder del perro* Lasarte Aretoan.

Abenduak 27, astelehena
 Hilaren 29ra arte, 12 eta 16 urte bitartekoentzako Negulekuak.
 20:15ean, AME merkatarien alkarteak antolatuta *Tarzan* ikuskizuna. Amaieran 6 otzararen zozketea. Lasarte Aretoan.

Abenduak 30, eguena
 20:00etan, Tentazio Konpainiaren *Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio)* Aitziber Garmendia aktoreak antzeztutako umorezko bakarriketea Lasarte Aretoan.

Urtailak 2, domekea
 17:00etan, umeentzako zinea; 19:30ean, zinea Lasarte Aretoan.

Urtailak 5, eguaztena
 17:00etan, Erregenetako Kabilgatea. Gero Erregeak Kultur Etxean egongo dira umeen gutunak jasoteko.

Urtailak 6, eguena
 19:00etan, Areatzako Banda Lasarte Aretoan.

Lemoa
Abenduak 15, eguaztena
 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, hilaren 24ra arte, Olentzerorentzako eta Mari Domingirentzako gutunak bialtzeko postontzia Kotxepin Kultur Etxean.

Abenduak 17, barikua
 19:00etan, Egunean Behin finala; 19:30ean, Ein Go kantan ta dantzari (gidatua) La Herradura tabernatik hasita.

Abenduak 18, zapatua
 12:30ean, Jon Urutxurturen *Arratia posta txartelean* erakusketearen inaugurazinoa. Urtailaren 7ra arte ikusgai Kotxepin Kultur Etxean.

Abenduak 24, barikua
 11:00etan, Olentzero eta Mari Domingi udaletxean.
 19:30ean, Olentzero eta Mari Domingi Gaztetxeak antolatuta.

Abenduak 26, domekea
 10:00etan, herriko burdin iturrietatik martxea. Gaztetxeak antolatuta.

Abenduak 27, astelehena
 Hilaren 29ra arte, Gazte Negulekuak Angianon.

Abenduak 28, martitzena
 11:00etatik 13:30era eta

17:00etatik 20:00etara, Gabonetako haur parkea kiroldegian.
 19:30ean, Pintxo Lehiaketa Camping/eroa. Karabie Gazte-xeak antolatuta.

Abenduak 29, eguaztena
 10:00etatik 17:30era, izotz pista- ra urtekerea.

Abenduak 31, barikua
 12:30ean, Eneko Zamalloa memoriale. Lemoako X. Gabonetako lasterketea Elizondon.
 Goizean, Futbito Txapelketea Gaztetxeak antolatuta.



Urtailak 4, martitzena
 10:00etatik 16:00ak arte, Bilbora urtekerea.

Urtailak 5, eguaztena
 19:30ean, Karaoke poteoa Gaztetxeak antolatuta.

Ubide
Abenduak 18, zapatua
 21:00etan, Olentzero, Mari Domingi eta Galtzagorri etxeetara joango dira umeen eskutitzak jasoteko.

Abenduak 24, barikua
 Olentzero eta Mari Domingiri agurra.

Zeanuri
Abenduak 20, astelehena
 11:00etan eta 12:00etan, saio bi, jazarpenaren kontrako ikuskizuna Kultur Etxean.

Abenduak 22, eguaztena
 11:00etan, Porrotx eta Marimotots Ibarretako frontoian.

Abenduak 23, eguena
 18:00etan, Lur 2000 alkarteko Ramon Zearretaren berbaldia, *Nekazaritza ortua-lorategia-frutalak* jubiladuen lokalean.
 18:30ean, Dimegaz Kultur Elkartaren *Harria Herria* film laburra Kultur Etxean; 19:00etan, Virginia Imazen pailazoaren *Pro-noia* bakarriketea Kultur Etxean.

Abenduak 24, barikua
 17:30ean, Olentzero eta Mari Domingi frontoian.

Abenduak 26, domekea
 18:30ean, *Arineketan* ikuskizuna Ibarretako frontoian.

Abenduak 27, astelehena
 09:30etik 13:30era, hilaren 30era arte, Negulekuak 2009 eta 2018 artean jaiotako umeentzat.
 18:30ean, Joxe Felix Zuazuaren berbaldia *Gure abizenen etorria* Kultur Etxean.

Abenduak 28, martitzena
 18:30ean, Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia *Euskerea eta matriarkadua* Kultur Etxean.

Abenduak 29, eguaztena
 18:30ean, *Bideak* dokumentala Aritz Gamboa de Miguel Kultur Etxean.

Abenduak 30, eguena
 19:00etan, pelota partiduak frontoian.

Zeberio
Abenduak 15, eguaztena
 19:30ean, *Aupa Pou. Bizitzari sokaz lotuta* Pou anaien liburua- ren aurkezpena eskola zaharrean.

Abenduak 16, eguena
 17:30ean, Paula Kasares sozio- linguistaren berbaldia, *Egin euskeraz esatetik harago, nola motibatu haurrak euskeraz egiteko* udaletxean.
 19:30ean, Jürgen Langeren *Juan Ulezuri* liburua- ren aurkezp- ena Hogarrean.

Abenduak 17, barikua
 18:20ean, Ballet ikuskizuna plazako frontoian; 19:00etan, txotxongiloak *Noraren sekretua* Kultur Etxean.

Abenduak 18, zapatua
 19:00etan, Ugaoko korua San Antonio ermitan. Ermitabarrin.

Abenduak 23, eguena
 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, "Euskal mitologian barrena" Kultur Etxean; 18:30ean, ipuin kontalaria Kultur Etxean; 20:00etan, swing musika kontzertua San Antonio ermitan, Ermitabarrin.

Abenduak 24, barikua
 17:30ean, Olentzeroren etorre- rea aterpean.

Abenduak 27, astelehena
 11:00etatik 14:00etara, umeen- tzako jolasak.

Abenduak 29, eguaztena
 12:00etan, gazteentzako robo- tika saioa Hogarrean.

Abenduak 31, barikua
 10:00etan, mendi urtekerea Ton- torrandira. Plazan.

Gabon zoriontsuak
 eta urte barri on!
 Zure ametsak egi bihurtu daitezala.

ARRATIAKO VDALEN
 MANKOMUNITATEA

Elxalde Kalea, 49 / 48140 IGORRE / Tfnoa. 94 631 17 17
 mankomunitatea.arratia@bizkaia.org / www.arratia.eus



ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA

ANDRAMARI ZORNOTZAKO IKASTOLA

"Txikiak handi egiteko, hezkuntza osoa"



HAZIA
(0-6 urte)



KIMUA
(6-9 urte)



EKIA
(9-16 urte)



IBAIZABAL
(16-18 urte)



- Pedagogia eraldatzailea.
- Ikastolako sukaldean prestatutako produktu ekologikoak, bertokoak eta sasoikok.
- Garraioa: Usansolo, Bedia, Lemoa, Igorre eta Zornotza.
- Zaintza.
- Eskolaz kanpoko ekintzak.

MATRIKULA URTE OSOAN ZABALIK

Bisita gidatuak eta informazio gehiago: 94 673 29 50 · zornotza@ikastola.eus · www.andramarizornotzakoikastola.eus



Ubideko Udala



Zorionak eta urte barri on!

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

filippini **Nilfisk** **JCB** **MANITOU** **CTX CONTAINEX** **TeknoDixika** **HIKOKI** **POWER PRODUCT GENESE** **MASTER** **INSTANT UPRIGHT**

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus



**Gabon
zoriontsuak
eta urte
barri on!**

2022



Zoriontasunez beteriko Gabonak opa deusueguz herritar guztiori, urtea ondo amaitu eta hurrengoa hobeto hasi.

Zeanuriko Udala

*Zorionak eta
urte berri on*



Arteako Udala



2022



Jai egun zoriontsuak eta urte barri on!

FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia B taldea lidertzan dago



Gizonezkoen Arratia A taldea Galea A taldearen kontrako partiduan.

Erredakzinoa

Gizonezkoen Arratia A taldeak 3 partidu jokatu ditu atzen hamabostaldian. Hilaren 4an husna bardindu eban Abadiño A taldearen kontra etxetik kanpo jokaturako partidua, hilaren 8an Galea A taldearen kontra bana bardindu eban etxean eta hilaren 11n Basconia B taldearen kontra jokaturakoa 1-0 galdu eban etxetik kanpo. Liga osoan Arratiak galdu dauan partidu bakarra izan da atzenengoa. Datorren partidua etxean jokaturako dau Arratiak hilaren 18an, Moraza A taldearen kontra arrastiko 18:00etan. Hamalau jardunaldiren ostean bigarren dago Arratia 29 puntugaz eta liderragaz bardinduta.

Arratia B taldeak hilaren 12an jokatu eban Abadiño B taldearen kontra etxetik kanpo eta 0-1 irabazi eban. Aurreko partidua 6-0 irabazi eban Otxarkoaga B taldearen kontra Igorren hilaren 4an. Datorren partidua Mungia B taldearen kontra jokaturako dau Arratia Bk, hilaren 19an, eguerdiko 12:00etan Urbietan. Hamabi jardunaldiren ostean lidertzan sendo segiduten dau Arratia Bk 31 puntugaz.

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 11ko arrastian jokatu eban Monte taldearen kontra etxean eta 0-3 galdu eban. Aurreko partidua San Ignacio taldearen

kontra jokaturakoan, 1-3 irabazten joan ziran arren hiruna bardindu eban arratiarrek. Datorren partidua, bigarren bueltako lehen, etxean jokaturako dau Arratiak Nueva Montaña taldearen kontra urtailaren bigarren astegoienean. Ligea sano ondo hasi eban arren hainbat partidu daroaz Arratiak emaitza txarrakaz. Hamahiru jardunaldiren ostean hamargarren postuan dago 15 puntugaz.

Arratia B taldeak be hilaren 11n jokatu eban San Ignacio B taldearen kontra etxetik kanpo eta 4-2 galdu eban Igorreko taldeak. Aurreko partidua etxean jokatu eban Elorrio B taldearen kontra eta 1-2 galdu eban. Datorren partidua Peña Athl. Santurtziren kontra jokaturako dabe Urbietan hilaren 19an, 15:30ean. Hamar jardunaldiren ostean hamargarren postuan dago Arratia B 12 puntugaz.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak 0-1 irabazi eban hilaren 11n Mungian bertako taldearen kontra jokaturako partidua. Aurreko partidua ostera husna bardindu eban Ezkurdi A taldearen kontra Arlo-nagusian. Datorren partidua Ibar-susi taldearen kontra jokaturako dau 19an goizeko 10:00etan etxetik kanpo. Hamabi jardunaldiren ostean bigarren postuan dago Lemoako taldea 26 puntugaz.

ZIKLO-KROSA

Raul Lopezek eta Irati Quintanok eroan eban Txiki Kopa Igorren

Abenduaren 12an jokatu zan Igorreko Ziklo-krosaren 44. edizinoa. Oingoan, Federazinoko Txiki Kopa jokatu zan eta Bizkaiko eskolek eta txirrindularirik gazteenek egin eban Olabarriko zirkuitua.

Erredakzinoa

Eguraldiak lagundu eban, baina 21 egunetan euria egin ostean, lupetz handia egoan zirkuituan eta ume eta gazteek ziklo-krosaren esentzia bizi izan eban Igorreko proban. Hainbat ziklismo eskolek hartu eban parte eta Kadete eta Junior mailakoen lasterketan podium eta sariak egon ziran.

Alebin eta Infantil mailako Bizkaiko Federazioaren 8 probez osotutako Txiki Kopearen atzena izan zan Igorrekoa eta bertan ebati ziran irabazleak. Raul Lopezek eta Irati Quintanok eskuratu eban sariak.

Kadete mailan, 74 txirrindularik hartu eban parte mutilen lasterketan eta 7k nesken lasterketan. Haritza Allende, Iñigo Uria eta Hodei Muñoz, eta Joane Gorostiza, Maria Martinez eta Paula Gonza-

lez igon ziran podiumetara. Lehenengo arratiarrak be izan eban saria eta Xabier Cerro izan zan, laugarren sartu zana helmugan.

Junior mailako lasterketan, 52 mutilek eta 18 neskek hartu eban parte. Beñat Fernandezek irabazi eban proba gizonezkoetan; bigarren, Oier Ruiz de Arkauten izan zan eta Lemoako Galder Leiza Zuberok osotu eban podiuma. Andrazkoetan, Maria Modenes izan zan irabazlea; Marta Betik egin eban bigarren eta Lidia Tarasek, hirugarren. Arratia Ziklista Eskolako onena, Markel Ealo izan zan.

AZEK saritu gura izan eban denporaldiko proba guztietan parte hartu daben ikasleak eta bost sari emon eban: Igor Maguregi, Aretx Tellaetxe, Markel Egiluz, Markel Gorostizagoiza eta Peio Leginari, hain zuzen be.



LASTO BOTATZE

Tubi Euskadiko eta Bizkaiko txapelkun lasto botaten



Jose Martin Bustinza "Tubi".

Erredakzinoa

Euskadiko txapela eta Bizkaikoa jantzi eban Tubik, abenduaren 11n Urdulizen eta 12an, Arratzun.

Euskadiko Txapelketan, 6 m eta 10 cm-an ipinitako listoia pasau eban; bigarren Beñat Obieta izan zan (5,50 m) eta hirugarren Juan Carlos Lopez (5,30 m). Proban beste arratiar bik be hartu eban parte, Dimako Jon Loiolak seigarren eta Igorreko Bernardo Ureta "Urpe"k, zortzigarren egin ebanak.

Bizkaiko Txapelketan Tubi dimoztarrak 5 metro eta 90 cm-ko marka egin eban. Bigarren, Beñat Obieta Arratzukoa izan zan (5,50 m) eta hirugarren Ondarroako Mikel Agirre, (5,30 m). Jon Loiolak laugarren egin eban.



Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzeko deus.

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana. Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu (beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA

Diseinua + 4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA

Diseinua + 4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizidadea:

649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

MENDIA

Hilaren 18an izango da bueltan San Kristobaleko Mendi Martxea

Erredakzinoa

Igorreko San Kristobaleko XVIII. Mendi Martxea abenduaren 18rako antolatu dau Intxaurbizkar Kultur Elkarateak Igorre eta Dimako Udalen laguntzeagaz. Hilaren 11n oster, orientazio ikastaroa egin eben.

San Kristobaleko Mendi Martxan, ibilbide bi dagoz aukeran,

luzeak 21 km ditu eta laburrak 17 km. Urtekerea San Kristobaleko plazatik 08:30ean izango da. Ibilbidean zehar jan-edan guneak egongo dira eta COVID neurriak bete beharko dira. <http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=11381399> helbidean ibilbide luzea ikusi ahal da. Aurreko edizinoa 2019ko zemen-diaren 30ean izan zan.



PELOTEA

Aitor Zilaurrenek jantzi eban banakako txapela Lemoako Txutxin Txapelketan

Erredakzinoa

Abenduaren 3an jokatu ziran Lemoako Eskupilota Taldeak antolatuten dauan Txutxin Txapelketako finalak. Aitor Zilaurren buruz burukoan eta Aitor Etxebarria eta Urtzi Bidaburuk irabazi eben binakakoa.

Banakako finalean; izan be Aitor Zilaurren Igorrekoa eta Ander Elorz Lemoakoa neurtu ziran.

Igorrekoak irabazi eban txapela 18-16 emaitzeagaz.

Binakakoan, Aitor Etxebarriak eta Urtzi Bidaburuk 22-15 irabazi eutseen Joseba Bilbao eta Gorka Lazkanori. Final honetan, Lemoako klubak seguru eukan txapela. Izan be, bikote bietan egozan Lemoako klubeko pelotariak. Bikote txapelduneko Aitor Etxebarria Nabarnizeko pelotaria, Lemoako klubekoa da eta.



PELOTEA

Amaia Aldaik eta Miriam Arrillagak jokatu dabe Master Laboral Kutxako finala Mungian

Erredakzinoa

Egungo txapelduna dan Miriam Arrillagak eta Amaia Aldaik jokatu dabe, abenduaren 19a Mungian Lau eta Erdiko Master Laboral Kutxaren finala. Hilaren 5ean Muskizen jokaturako finalerdi burukatuan dimoztarrak Olatz Arrizabalagari (22-19) irabazi eutsan. Estilo sano desbardineta pelotarien arteko finala izango da Mungiakoa.

Aldai eta Arrizabalaga aurrelari artekoa partidua, aireko joko biziko partidua izan zan, nahiz eta urduritasunak izan eban eraginik. Batez be Arrizabalaga ibili zan gora-beheratsuago, tantu bikainak eta ebatzi okerrak tartekatuz eta atzenerako bere lana sano txukun egin eban arren, Aldai

nagusitu zan, nahiz eta momentu batean, 14-18 atzetik joan zanean esaterako, finalak iges egin-go eutsala irudien baina Dimako aurrelariak gauzak egokiago egin



Eskoitik hasita lehenengoa makurtuta Ainhoa Romero.

ERRUGBIA

Atzen partidua irabazi eban Arratiko Zekorrak-ek

Erredakzinoa

Abenduaren 11n ziran jokatzekoak Arratiko Zekorrak Igorreko San Txisme zelaian Gasteizko Vithas Gaztedi RTren kontra, baina euriteek aldageletan eragindako kalteak dirala eta partidua atzeratu egin zan.

Zemendiaren 27an oster, Arratiko Zekorrak taldeak Pradoviejon Domiberia RC Rioja taldearen aurka jokatu eban,

garaipen biribila lortuta, 14-47. Andoni Lucas Alonsok lortu eban Zekorrentzako tantu gehien, partidua aurreko astean fitxautako jokalaririk.

Datorren partidua abenduaren 18an, arrastiko 17:00etan, jokatu dabe Eibar RT taldearen kontra etxetik kanpo Unbe zelaian.

Sei jardunaldiren ostean, partidua bat gitxiagaz eta sei puntugaz, zazpigarren dira sailkapenean arratiarrak.



zituan amaieran.

Ainhoa Romero lemoaztarra txapeldunorde

Hilaren 4an oster Abadiñon, pelotalekua beteta egola Master Laboral Kutxa honetako lehen finalak jokatu ziran. Promesen mailako pelota mistoko finala Maddi Berrocal eta Ainhoa Romerok jokatu eben. 18-6ko emaitzagaz irabazi eban Berrocal bergararrak partidua. Hori bai azken markagailuak esaten dauana baino lehia estu eta peloteatuagoa izan zan, baina azkeneko tantu gehienak Berrocalen aldera jausi ziran.

SOKATIREA

Diman jokatu zan Goma Gaineko Bizkaiko Sokatira Txapelketako lehen saioa

Erredakzinoa

Abenduaren 4an jokatu zan Bizkaiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako lehen saioa Dimako frontoian. Zortzi talde ibili ziran lehian, hiru andrazkoetan, 520 kilo; eta bost gizonezkoetan, 640 kilo. Andrazkoetan Gaztedik irabazi eban, gizonezkoetan barriz Murueta izan zan onena. Bigarren saioa oster Leioan jokatu zan hilaren 12an, han Gaztedik irabazi eban barriro andrazkoetan eta Gaztedik be gizonezkoetan. Atzen saioa Abadiñoko probalekuan jokatu da hilaren 18an arrastiko 17:00etan.

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

Bihotza

Estetika Zentroa

Manikura
Pedikura
Depilazioa
Solariuma

Vika

Lehendakari Agirre, 2 beheko - 2D - Igone - 689 766 062

EMONALDIA

Mikel Etxabururen poemen errezitaldi musikatua egingo dabe Areatzako komentuan

Erredakzinoa

Oroitzen hondarrak nota txiki-tan izeneko emonaldia eskainiko dabe abenduaren 26an, 19:30ean Areatzako komentuan Nerea Zuloaga billaroztarrek, Mikel Etxaburuk eta Izaskun del Cerrok. Ikuskizuna, Mikel Etxabururen *Ahaztu baino lehen, ama* poema liburuan oinarrituta dago eta piano musikea zuzenean, kantua eta poema errezitaldiak batzean ditu.

Ahaztu baino lehen, ama poema liburua, oin dala hiru urte hasi zan idazten Etxaburu, ama bizitzaren atzen fasean sartzean. Liburua kantu bat da, esperantzea emoten dauana. "Bere bide

horren bidaide izan gura neban. Eskutik helduteko modu bat da, nik poema bidez egin dot, neure erara. Bera hobeto ulertuteko, beragaz hobeto egoteko modu bat izan da. Nire amari kantetan deusatz, idazten deusatz, baina nirearen moduan beste ama eta aita asko dagoz" azaldu deutso egileak Berria egunkariari Milder lantzik egindako alkarrizketa baten.

Beste hiru poema liburu be baditu egileak *Zu zara orain txoria* (Elkar, 2011), *Hodeiak zapate-tan* (Susa, 2014) eta *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein, 2016). Atzen honegaz, Blas de Otero-Bilbo Uria nazinoarteko saria irabazi eban.



EGUNEAN BEHIN

Egunean Behin-eko aurrez aurreko finala Lemoan

Erredakzinoa

Abenduaren 17an Egunean Behin Lehiaketako finalean jokatzeko aukerea izango dabe lemoaztarrek Kotxepin Kultur Etxean.

Egunean Behin tribial estiloko galdera-erantzunen joko arrakastatsua da, Euskal Herri mailan 60.000 erabiltzailek jokatu izan dau eta. Egunean behin 10 galdera erantzun behar ditu parte-hartzaileak albait arinen. Asmatuten diran galdera kopuruan ez ezik, galdera guztiak erantzuteko erabilitako denporean be oinarrituten da puntuazinoa.

Jokoaren formatu hori hartuta, eta jokoaren enpresearen baimenagaz, aurrez aurreko finala izango da Lemoako Udalak anto-

latu dauana. Lehiaketaren norgehiagokea indartuteko irabazleak saria izango daula adierazo dabe antolakuntzakoek. Kahoot plataformea erabilia bideratuko da jokoa eta parte-hartzaile guztiek aldi berean jokatu dabe zuzenean Kotxepinen.

Finalean parte hartuteko aukerea edozein lemoaztarrek izango dau, eta beren-beregi konbidauko dira Egunean Behin jokoan bertan herriak dauan taldeko 130 kideak.

Udalak berak prestatuko ditu galderak eta herriari lotutakoak zein orokorrak izango dira; izan be, euskal gaiak zein euskerazkoak egitea eta herritarren artean arlo horreetako edukiak transmitiduten saiaturea da jokoaren helburua.

ERAKUSKETEA

Arratia posta txartelean erakusketea Lemoan

Arratia posta txartelean argazki erakusketea inaugurauko da abenduaren 18an, 12:30ean, Kotxepin Kultur Etxean eta bertan egongo da urtailaren 7ra arte.

Erredakzinoa

Arratiari buruz egindako posta txarteletan azaltzen diran 90 bat argazki biltzean dituan erakusketa hau, 2014an Jon Urutxurtu zeanuriztarrek euskeraz argitaratutako *Arratia posta txartelean* liburuan oinarritzen da. Erakusketearen komisarioa be bera da. Argazkiak, ia danak XX. mendearen lehen erdian egindakoak, herriz herri sailkatu dira eta osagarri moduan XX. mendearen hasikera eta erdikaldean Arratian grabautako zinema irudiak be izango dira ikusgai. Erakusketa ibiltari hau 2019an Igorreko Lasarte Aretoan egon zan ikusgai eta oin Lemoan izango da.

Sasoi baten, posta txartelei esker ezetuten ziran munduko txokoak. XIX. mendearen amaierarantza hasi ziran indarra hartzean posta txartelak, eta turismoa hedatuz joan ahala zabaldu egin zan hareek biltzeako zaletasuna. *Arratia posta txartelean* erakusketan Arratia bailarari buruz argitaratu diran posta txartelak biltzean dira. Erakusketearen helburua "Arratia eta arratiarren irudiak azaltzen diran posta txartelak erakustea eta ezetuten emotea da; holan, Arratiako ondare historikoaren atal bat berreskuratzeko eta ezetuten emoteko".

Guztira 90 posta txartelen argazkiak erakusten dira, 24 cm x 38 cm tamainuan; "Sarritan, Arratia iraganari lotutako parajetat hartu da, Bizkaia zaharkituaren paradigma-tzat. Gertaera horrek pentsau arazo leikegu posta txartel ilustrauak argitaratu ziran lehen urteetan, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasikera, ez ebalu erakarriko editoreen arreta. Lan honetan azaltzen dan kopurua kontuan hartuz, bistakoa da hori ez zala holan izan" dino Jon Urutxurtuk.

Dana dala, helburu nagusia Arratiari buruz editau diran posta txartel klasikoak, izenburua edota editorea, inprimatzailea eta argazkilaria idatzita daroena, biltzea izan bada be, ez dira ahaztuten argazki-posta txartelak, argazkilaria batzuek posta txartelen papelean errebeletan ebezan argazkiak, postaz bidali ahal ziranak: aurrekaldean argazkia daroe eta atzekaldean *Post Card*, *Tarjeta Postal*, *Carte Postale* izenburua inprimata edota helbidea

idazteko eta zigilua itsasteko gunea.

Arratia eta arratiarren gaineko posta txartelak argitaratu ebezanen artean, zenbait enpresa zein partikular topau daitezke eta horreen artean honako honeek identifikau dira: Felipe Manterola, Indalecio Ojanguren, Foto Lux, L. G. Bilbao, Librería E. Verdes, Librería Villar, Artes Gráficas Lerchundi S. A., P. Ortiz, Seminario Menor de Ntra. Sra. De Begoña, Areatzako bainuetxea, Bizkaiko Foru Aldundia, Museo de las Guerras, Landáburu Hermanas eta L. Roisin. Editoretzat hartu daiegu Indalecio Ojanguren eta Durangoko Foto Sol argazki dendea be, eurak editutako argazki-posta txartel bi batzean dira eta.

Felipe Manterola: argazkilaria eta editore arratiarra

Editore horreen guztien artean aiatamen berezia merezidu dau Felipe Manterolak (Zeanuri, 1885-1977), berak editau ebazan posta txartelak balio etnografiko handia daukie eta. Argazkilaria handia be izan zan. Dirudiane, lehenengo argazkia 1904an egin eban, eta ordutik aurrera, 1936ko gerreak eztanda egin arte, mila argazkitik gora egin ebazan. Manterolaren irudietan paisajea eta lagunak, herriko lanbideak eta XX. mendearen lehen hiru hamarkadetako jazoerak agertzen dira. Eta lan horreetan guztietan argi eta garbi azaltzen da Zeanuri-gaz eukan lotura handia.

XX. mendeko bigarren hamarkadan posta txartelen bildumak be

editau ebazan berak egindako argazkiak erabiliz. Batzuk Alemanian emon ziran argitara, beste batzuk Frantzian eta Bilbon. 1928tik aurrera zinematografoari be ekin eutsan. Filmautako irudi gehienak 1928 eta 1932 urteen artean hartuak dira, gehienak Zeanurin, eta ikusgai izango dira erakusketan.

Aitagarria da Gráficas Lerchundi Bilboko etxeak, 1944an editau eta inprimau eban hamar posta-txarteletz osotuten dan seriea be. *Serie A. Arratia. Vizcaya* izenburua daroan gutun-azal baten bilduta argitarau ebazan: bina postal Areatzari, Dimari, Igorreri eta Zeanuriri buruzkoak, eta bana Arteari eta Lemoari buruzkoak. Azaltzen diran irudiak Luis de Lerchundiren marrazkiak dira.

XX. mendearen erdira arteko posta txartelak

Kronologiari jagokonez, XX. mendearen hasikeratik 1950eko hamarkadara arte editau ziran posta txartelak aurkezten dira. "Data zehatza ezin bada jarri be, ziurtasunez baieztatu daiteke posta txartel zaharren biak 1906. urtearen aurrekoak dirala, atzekaldean banandu barik daroe eta. Batak Areatzako eleizea azaltzen dau; besteak Igorrekoea", biak koloretan inprimata dagoz.

Gainontzeko posta txartelak 1906 urteaz geroakoak dira, atzekaldean bananduta daukie eta. Erdiak inguru 1906 eta 1920 urteen artean editau ziran. Geroagokoak dira Bizkaiko Foru Aldundiak auzo-eskolei buruz argitaratutakoak, 1922koak hain zuzen be; Areatzako asiloaren postala, 1926 urtearen ingurukoa da; Lemoako Burdin Hesiari buruz Gerren Museoak argitarautakoa, 1937koa edo beranduagokoa; Areatzako bainuetxeari buruzko gehienak eta Arteako Seminario Txikiak editautakoak, seguru asko 1940ko hamarkadakoak; eta Artes Gráficas Lerchundiren seriea, 1944an argitaratu zan. 1950eko hamarkadakoak dira Gorbeiaiko kurutzea islatzen dauana eta Foto Solen Undurragako (Zeanuri) argazki-posta txartela.



"Lemoa camino de la iglesia". Idatzita dago eta 1913ko bagilaren 6ko posta marka daroa. 1910eko hamarkada (1913koa edo lehenagokoa).

LIBURUA

Jürgen Langeren *Juan Ulezuri* liburuaren aurkezpena izango da Zeberion

Erredakzinoa

Abenduaren 16an, 19:30ean izango da, Jürgen Langeren *Juan Ulezuri* bere atzen eleberriaren aurkezpena Zeberioko Hogarrean Onakaos Kultur Elkartean antolatuta. Langedaz batera liburu honetako irudiak ilustrau dauzan Vicente Lapiedra "Biken" izango da bertan. *Juan Ulezuri* Zeberion girotutako eleberri historikoa da.

Landa eremuko historiaren gainera hirugarren argitalpena da baina oingoan eleberri formatuan. Bizkaiko herri txiki baten eguneroko bizi baldintzak gureganatzea gura eban egileak.

"Oin dala hogeta bost urte tesia argitaratu neban: *Economía rural*



tradicional en un valle vasco izeneko. Testuak idazkera berezia eskatzen eban, ikerketa ereduari jarraitzen eutsana. Holango liburuak ez dira irakurterrazak, baina mila aleko edizinoa hilabete batzuen epean agortu zan. Badirudi zeberioztarrei arbasoen eta herriaren nondik-norakoek interes handia biztu eutseela" adierazo eutsan BEGIturi Langek urri bigarrean argitaratutako alkarrizketan.

Zeberion Ermitabarriko tabernan, Igorren Marrak paperdendan eta interneten be salgai dago, Bod argitaletxean. Argibide gehiago gura ezker, Juan Ulezuriren webgunean dagoz: <https://juan-ulezuri.jimdosite.com/> helbidean.

KONTZERTUA

El Drogas-ek kontzertua emongo dau Areatzakoko komentuan urtailaren 2an

Enrique Villarreal "El Drogas"ek, *El Drogas. Akustik Fraktion* izeneko kontzertua emongo dau urtailaren 2an, 20:00etan, Areatzakoko komentuan.



Enrique Villarreal "El Drogas".

MUSIKEA

Luis Iruarizaga eta Ugandako Aba Taano egongo dira Lasarte Aretoan

Erredakzinoa

Igorreko Luis Iruarizaga abesbatza eta Ugandako Aba Taano taldea izango dira Igorren hilaen 18an, 19:00etan Lasarte Aretoan.

Ugandako taldeak Gospel musika eskainiko dau beste estilo batzuen artean. "Literaturea eta musika Kirekatik Igorrera eta Igorretik Kirekara. Proiektu honetan senidetu egingo gara Igorreko kulturako arlo batzuk (liburutegia, Luis Iruarizaga abesbatza eta euskera arloa) eta Kirekako (Uganda) Aba Taano

taldea. Herri bietako musika eta hizkuntzea -euskerea eta suaajilia- alkatuko dira kulturea izanda bidegile" dinoe Luis Iruarizaga abesbatzakoe.

"Gospela, Afrikako kantua, pop estiloa, dana *a cappella* eta antzetzua, mobimentu handiagaz eta atsegina. Musika desbardin bat, planteamentu original bat, errepertorio propioa eta esperientzia handia" dira Ugandan bizi diran baina aldian-aldian bidaiatzen daben 5 ugandar gazte honeen ezaugarriak. 2008tik Europako eszenatoki handienetan ehunka kontzertu emon dabez

eta daborduko nazinoarteko 6 sari irabazi dabez.



Erredakzinoa

Izena, Areatza Urtaroka webgunean emon behar da edo 94 673 90 10 telefonoan abenduaren 20tik aurrera. Areatzakoko 16 urte-rik gorakoek eukiko dabe lehen-tasuna eta aforoa bete ezker zozketea egingo da.

Kontzertuan, atera barri dauan disko eta poema eta idatzien liburua aurkeztu ditu El Drogas-ek, eta kantu barrietatik abiatuta bere ibilbide osoko klasikoetara doan errepertorioa eskaintzen dau kontzertu akustikoetan.

Enrique Villarreal "El Drogas" Enrique Villarreal Armendariz (Iruña, 1959) Barricada taldeko kidea izanagaitik da ezaguna. Barricada, Euskal Rock Erradikala mobimentuko rock musika talde bat izan zan. Estudioko 15 album eta mila kontzertu baino gehiagoren ostean 2013an desegin zan banda.

Beste talde batzukaz be jo eban Villarrealek, Txarrena taldean eta La venganza de la abuela taldean, hain zuzen be. Bakarka, El Drogas lege, sei disko ditu kalean abeslari nafarrak.

DUNBA

Zemendiak 25

Artea eskolako 3. zikloko ikasleak

Zemendiaren 25a Andren Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazinoarteko Eguna da. Mutilek, neskak mindu, jo, iraindu eta batzuetan hil egiten ditue.

Egun hau ez ahazteko eta danok gogoratzeko, leku askotan ekingintza desbardinak egiten dira: kaleetan manifestazioak, erro-pa morea erabiltzen da, andren ikurak karteletan ipinten dira, eskoletan modu desbardinetan aldarrikatzen da...

Egun hau adierazoteko kolore bat nabarmentzen da batez be: morea. Andrankanako indarkeriaren kontrako kolorea.

Hainbat urtetan zehar, kasu asko hasi dira agertzen eta zorritzarrez datuak gorantza doaz. Horrek aurrera ez egiteko, danon artean ikasi behar dogu inor ez mintzen.

Oin dala gitxi laguntza eskatzeko eta gertaera honeek beheantza joateko keinu bat atera da.

Ea honegaz guztiagaz danok lortzean dogun inor ez mintzea



eta behar dauanari laguntzea emotea.

Badira neska asko zauritu direnak eta mutilen erruz txarto dabizenak.

Ez ditugu onartzen pertsonen hitz motzak ondoren mintzen dira gure emakumeak.

Azaroak 25 gora emakumeak

morea ta larrosa kolore onenak.

Azaldu behar dena mindu ezin dela elkar errespetatuz modurik onena.



AGENDEA

ABENDUAK 15

ARRATIA

Urtailaren 7ra arte, Arratiako Berbalagunek antolatutako Mikro-ipuin Lehiaketea. 50-100 berba bitartekoak arratiaberba@gmail.com-era bialdu.

BEDIA

19:00etan, Erregenetako Kabalgatan parte hartzeako batzarra eskoletan.

IGORRE

Gabonetan kulturea oparitu!! Bazkide izateko kanpainea Lasarte Aretoan. Bazkide txartela, 25 euroren truke, 5 euro merkeago egin edo barriztu daiteke hilaren 28ra arte Kultur Etxean.

Hilaren 20ra arte, Kultur Etxeko ikastaroetan izen emotea, ikastaroak@igorre.net helbidean.

LEMOA

10:30etik12:30eraeta16:30etik19:30era, hilaren 24ra arte, Olentzerorentzako eta Mari Domingirentzako gutunak bialtzeko postontzia Kotxepin Kultur Etxean.

ZEBERIO

19:30ean, *Aupa Pou. Bizitzari sakaz lotuta* Pou anaien liburuaren aurkezpena eskola zaharrean.

ABENDUAK 16

IGORRE

16:30etik 20:30era, Azoka solidarioa Elkartasun Begirada Elkarateak antolatuta.

20:00etan, Zinekluba *Lurralde hotzak* Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

17:30ean, Paula Kasaresen berbaldia, *Egin euskeraz esatetik harago, nola motibatu haurrak euskeraz egiteko* udaletxean; 19:30ean, Jürgen Langeren *Juan Ulezuri* liburuaren aurkezpena Hogarrean.

ABENDUAK 17

ARANTZAZU

Abenduaren 29ko Urkiolara urtekerarako izena emoteko azken eguna. Udaletxean.

BEDIA

Erregenetako Kabalgatarako izena emoteko atzen eguna Bedian erroldatuentzat. Liburutegian.

IGORRE

20:30ean, ateak zabaldu. Wood Strings eta Unidad Alavesa taldeak Kiñu Gaztetxean. 19:30ean sarrerak salgai.

LEMOA

19:00etan, Egunean Behin finala; 19:30ean, Ein Go kantan ta dantzan kalejirea La Herradura tabernatik hasita.

Urtilaren 4ko umeentzako Bilboko urtekerarako izena emoteko atzen eguna www.lemoa.net webgunean.

ZEBERIO

18:20ean, Ballet ikuskizuna plazako frontoian; 19:00etan, txotxongiloak *Noraren sekretua* Kultur Etxean.

ABENDUAK 18

AREATZA

21:00etan, William-en Plays and Tales blues eta rock kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

10:00etatik 14:00etara, Gabonetako Merkadia. Gorbeia Jomuga Turistikoak antolatuta, "Herri bat, merkatu bat".

14:00etan, jubiladuen bazkaria Ustrukue jatetxean.

IGORRE

08:30ean, San Kristobaleko XVIII. Mendi Martxea. Intxaurbizkar Kultur Elkarateak antolatuta. San Kristobalen.

09:30ean, Auzorik auzo Turroi Eguna. Lasarte Aretoa. Amaieran hamaiketako.

Migranteen Eguna. 12:00etan, kalejirea errotondatik hasita. Ostean herrialde desbardinetao pintxoak Kiñu Gaztetxean.

19:00etan, Igorreko Luis Iruarizaga abesbatza eta Ugandako Aba Taano Gospel taldearen emonaldia Lasarte Aretoan.

LEMOA

12:30ean, Jon Urutxurturen *Arratia posta txartelean* erakusketearen inaugurazioa. Urtilaren 7ra arte Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

21:00etan, Olentzero, Mari Domingi eta Galtzagorri etxeetara joango dira umeen eskutitzak jasoteko.

ZEBERIO

19:00etan, Ugako korua San Antonio ermitan. Ermitabarrin.

ABENDUAK 19

AREATZA

10:00etatik 14:00etara, Gabonetako Merkadia, "Herri bat, merkatu bat". Bizkaiko gaiteruak herrian zehar. 12:30etik 14:30era, Burrunba elektrotxarangea. Pintxo Lehiaketea tabernetan.

DIMA

13:00etan, konzentrazioa presoen eskubideen alde eta *Photocalla*. Etxean gure doguz!

IGORRE

10:30ean, Olentzero eta Mari Domingi eskutitza emoteko ibilbide mitologikoa Guraso Elkarateak antolatuta.

17:00etan, zinea, *Cuidado con lo que deseas*; 19:30ean, *Ultima noche en el Soho* Lasarte Aretoan.



Aitziber Garmendiak barre egiteko antzezlanana ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora

Abenduaren 30ean, 20:00etan, Aitziber Garmendia aktoreak, Marta Gonzalez de Vegaren *Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio)* antzezlanana taularatuko dau Lasarte Aretoan.

Jatorrizko testua, Kepa Errastik moldatu eban euskerara eta Fernando Bernues da zuzendaria.

Ikuskizuna hartu-emon afektiboen gaineko azterlanaren emaitza da, eta barrearen bidez maitasunaren patetismoa gainditzeko esku-liburua eskaintzen dau.

Sinopsia

Ikuskizun hau hartu-emon afektiboen inguruan egindako ikerketa baten ondorio da. "Saioa-belarrondokoa" metodo ezagunean oinarritutako azterketea. Maitasun kontuen patetismoa umorea besarkatuz gainditzeko eskuliburu peto-petoa da, eta beraz, edozein sexurentzat moduko ikuskizuna. Izan be, maitasunean danok gara patetikoak... Eta hortaz gozatzeko modu bakarra honako maxima hau da: Barre azkenengo egiten dauanak, denpora preziadua galdu dau.

ABENDUAK 20

BEDIA

17:00etatik 19:00etara, Gabonetako tailerrak ludotekan (ateak zabalik).

Erregenetako Kabalgatarako Bedian ez erroldatuentzat izen emotea liburutegian.

ZEANURI

11:00etan eta 12:00etan, jazarpenaren kontrako ikuskizuna Kultur Etxean.

ABENDUAK 21

BEDIA

17:30ean, Liburu-maleta ibiltaria Onditz Mendizabalegaz liburutegian.

Erregenetako Kabalgatarako Bedian ez erroldatuentzat izen emotea liburutegian.

ABENDUAK 22

ARRATIA

18:30ean, online mintzodromoa Berbalgunak antolatuta, <https://meet.jit.si/onlineMintzodromoa> helbidean. Izena hilaren 21a baino lehen emon arratiaberba@gmail.com helbidean.

BEDIA

17:30ean, Gabonetako jaia. Erakusketak, Gabon kankak, Gimnasia erritmiko erakustaldia, Jauziri Dantza Taldearen erakustaldia, Gabon postalen lehiaketearen eta Gabon zuzatzen lehiaketearen sari banaketea. Sarrerea euro bi edo janari pakete bat personako. Frontoian.

ZEANURI

11:00etan, Porrotx eta Marimotots Ibarretako frontoian.

ABENDUAK 23

BEDIA

16:30etik 19:30era, Gabonetako Postal Lehiaketako marrazkiak batzea.

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua eleizan.

ZEANURI

18:00etan, Lur 2000 alkarteko Ramon Zearretaten berbaldia, *Nekazaritza ortua-lorategia-frutalak* jubiladuen lokalean.

18:30ean, Dimegaz Kultur Elkaratearen *Harria Herria* film laburra Kultur Etxean; 19:00etan, Virginia Imaz pailazoaren *Pronoia* bakarriketea.

ZEBERIO

12:00-14:00 eta 17:00-20:00, "Euskal mitologian barrena" Kultur Etxean; 18:30ean, ipuin kontalaria Kultur Etxean; 20:00etan, swing musika kontzertua San Antonio ermitan, Ermitabarrin.

ABENDUAK 24

ARANTZAZU

12:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri ondoetorria plazan.

AREATZA

17:00etan, kalejirea herrian zehar plazatik hasita. Ondoren harrerea Olentzero eta Mari Domingiri frontoian.

ARTEA

17:00etan, plazatik hasita auzoz auzo abestu; 19:00etan, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea.

BEDIA

13:00etan, Olentzero eta Mari Domingi plazara joango dira umeakaz egoteko. Gaztain erreake bananduko dira.

DIMA

11:30ean, Olentzero eta Mari Domingiri harrerea.

IGORRE

Olentzero eta Mari Domingi.

LEMOA

11:00etan, Olentzero eta Mari Domingi udaletxean; 19:30ean, Gaztetxeak antolatutakoa izango da herrian.

UBIDE

Olentzero eta Mari Domingi agurra.

ZEANURI

17:30ean, Olentzero eta Mari Domingi frontoian.

ZEBERIO

17:30ean, Olentzeroren etorrerea aterpean.

ABENDUAK 26

AREATZA

19:30ean, *Ahaztu baino lehen, ama* poema liburuan oinarritutako, *Oroitzen hondarrak nota txikietan* emonaldi musikatua: pianoa, kantua, errezitaldia. Nerea Zuloaga, Mikel Etxaburu eta Izaskun del Cerro. Komentuan.

IGORRE

17:00etan, zinea *Una familia feliz 2*; 19:30ean, *El poder del perro* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, herriko burdin iturrietatik martxea. Karabie Gaztetxeak antolatuta.

ZEANURI

18:30ean, *Arineketan* ikuskizuna Ibarretako frontoian.

ABENDUAK 27

AREATZA

18:00etan, Kidam magoaren *Aroak eta mirariak* komentuan.

IGORRE

Hilaren 29ra arte, 12 eta 16 urte bitartekoentzako Negulekuak.

20:15ean, AME alkarateak antolatuta *Tarzan* ikuskizuna. Amaieran 6 otzararen zozketea. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Hilaren 29ra arte, Gazte Negulekuak.

ZEANURI

09:30etik 13:30era, hilaren 30era arte, Negulekuak 2009 eta 2018 artean jaiotakoentzat.

18:30ean, Joxe Felix Zuazuaren berbaldia *Gure abizenen etorria* Kultur Etxean.

ZEBERIO

11:00etatik 14:00etara, umeentzako jolasak.

ABENDUAK 28

BEDIA

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako parkea frontoian.

LEMOA

11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara, Gabonetako haur parkea kiroldegian.

19:30ean, Pintxo Lehiaketa Camping/eroa. Karabie Gaztetxeak antolatuta.

ZEANURI

18:30ean, Juan Manuel Etxebarriaren berbaldia *Euskerea eta matriarkadua* Kultur Etxean.

ABENDUAK 29

ARANTZAZU

09:00etan, Urkiolara urtekerea Zaztaparrakaz. Plazan.

AREATZA

18:00etan, asanblada irekia. Ta Gaztetxea zer? Udaleko Areto Nagusian.

LEMOA

10:00etatik 17:30era, izotz pistara urtekerea.

ZEANURI

18:30ean, *Bideak* dokumentala Aritz Gamboa de Miguel. Kultur Etxean.

ZEBERIO

12:00etan, gazteentzako robotika saioa Hogarrean.

ABENDUAK 30

AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandaren Gabonetako kontzertua eleizan.

ARTEA

18:30ean, Goizargi Gospel Choir abesbatzaren kontzertua eleizan.

BEDIA

15:00etan, urtekerea Gasteizko izotz pistara. 8 urte baino gitxiagoko umeak heldu bategaz sartu behar dira pistara. Meriendea eta eskularruak eroan behar dira. Izena emoteko atzen eguna abenduaren 17a.

ZEANURI

19:00etan, pelota partidua frontoian.

ABENDUAK 31

AREATZA

10:00etan, Lamino Kirol Klubak antolatuta, mendi urtekerea Urrekoatxara. Eleiza aurrean. 11:30ean, Lamino argazkia eta hamaiketako Urrekoatxan.

LEMOA

12:30ean, Eneko Zamarloa memoriala. Lemoako X. Gabonetako lasterketea Elizondon.

Goizean, Futbito Txapelketea. Karabie Gaztetxeak antolatuta.

ZEBERIO

10:00etan, urtekerea Tontorrandira. Plazan.

URTAILAK 2

AREATZA

20:00etan, *El Drogas Akustik Fraktion* kontzertu akustikoa, komentuan.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea; 19:30ean, zinea Lasarte Aretoan.

URTAILAK 3

ARTEA

18:00etan, Eleder magoa frontoian.

BEDIA

16:00etan, urtekerea Arriaga Antzokira *Guillermo Tell* opereara ikustera.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK MINTZAPRAKTIKA SAIOAK
Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako lagunentzat). Telefonoa: 635 750 097.
SALTZEAN DOT
Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikatuak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Deitu 657 707 725 telefonora.
SALTZEAN DOT
Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta prezio sano onean. Altueria 2,10 metro, zabalera 2 metro eta sakonera 40 zentimetro. 615 708 238.
SALTZEAN DODAZ
Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behealdean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

LANA INGELES IRAKASLE BILA
Ingelesa dakian persona baten bila nabil,

batxillergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emoteko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.
KLASEAK EMOTEN DODAZ
Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.
KLASEAK EMOTEN DODAZ
3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zeozar saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Bizkaiko Bertsozale Elkarteak emondako sarrera bi Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako.

Saioa Larrea (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Txanogorritxotik otso emera (sei mutil medio) antzezlanerako.

Kimetz Intxaurraga (Igorre)
Olaia Gurtubai (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean medu
seu
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfn. 94 631 92 96 • seumedu@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu


ASEGURUAK: ZUZENBIDE
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behe - Igorre (Bizkaia)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Pinturas Aratía
Javi Morato
Tel. 628 443 992

begitu
eus



GURE KLASIKOA

Askotariko Iberikoak
Askotariko prijiduak
Etxeko foie mikuita sagar purea eta jengibreagaz
Txangurroz betetako lebatza 1/2
Entrekota 1/2
Etxeko arroz esnea
39€

URTEURRENA

Urdaiazpikoa eta ezkur solomo iberikoa
Muskuilu zopa azafraiagaz
Arrautzea, ondoak eta patata purea
Bakailao konfitaua morroiakaz 1/2
Arkume terrina cous-cous-agaz 1/2
Mailuki eta arbekinazko emulsioa
43€

ILUNBE

Leongo zezinea, rukulea eta parmesanoa
Galeper ensaladea, ospinakaz eskabetxauta
Arrautzea, ondoak eta patata purea
Bakailao konfitaua morroiakaz 1/2
Masail iberikoak curry gorriagaz 1/2
Limoia eta trufa krema
46€

BAINUETXEA

Urdaiazpikoa eta ezkur solomo iberikoa
Etxeko foie mikuita sagar purea eta jengibreagaz
Ahate ensaladea, laranja eta pistatxo-ozpina
Orburuak 3 testura
Txangurroz betetako lebatza
Txahal azpizuna goarnizinoagaz
Brioche-ogi torrada
55€



Gitxienez 6 persona. Hasikerakoak mahai erdira serbiduko dira. Botila bat ardao 4 personako.

Menuen artean platerak aldatu daitezke gehigarria konsultauz.

Plater batzuk sasoiaren arabera aldatu daitezke.

48 ordu lehenago berretsitako mahaikideen kopurua fakturauko da.

Terrazea erabilgarri badago erabili daiteke. Galdetu pastelen aukereagaitik ekitaldi berezietarako.

info@hotelbalnearioareatza.com · 94 657 27 05

